

*BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAREN  
BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 GIZARTE  
AURREIKUSPENEKO PLAN INDIBIDUALAREN ARAUDIA*

## AURREIKUSPENENKO PLAN INDIBIDUALAREN ARAUDIA

### BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAREN BASKEPENSIONES BERMATUA 2016 GIZARTE

#### I. TITULUA

##### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. art. PLANAREN IZENA

Prestazioen araudi honen bidez (“Araudia”), “BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026” izeneko modalitate indibidualeko gizarte-aurreikuspeneko plana (“Plana”) integratzen da BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundearen barnean (“BGAE” edo “Erakundea”).

#### 2. art. ARAUDIAREN HELBURUA

BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundera atxikita dagoen BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 planaren araudiak arautu egiten ditu Erakundearen eta planeko bazkide eta onuradunen arteko harremanak, baita haien eskubideak eta betebeharrak ere.

#### 3. art. PLANAREN MODALITATEA

BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALean integratutako plana, hari atxikitakoen edo bazkideen artean dagoen harremana dela-eta, **sistema indibiduala** modalitatean dago, eta hitzartutako ekarpenen eta prestazioen arabera, **zehaztutako ekarpenak** dituen plan gisa definitzen da.

BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 Planaren inbertsio-bokazioa BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundearen Gobernu Batzordeak onartu zuen (“Gobernu Batzordea”), bere Inbertsio Printzipioen Adierazpenean (IPA). Bokazio horren ezaugarria da plan horri lotutako ondarea Bermatutako Plan gisa eratzten dela, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen jardueraren jakin batzuk arautzen dituen maiatzaren 29ko 97/2007 Dekretuaren 11. artikuluan adierazitako inbertsioetarako betebeharrak betez.

#### 4. art. PLANAREN HASIERA DATA ETA IRAUPENA

Plana Erakundearen integratutzat hartzen da, Eusko Jaurlaritzako agintari eskumendunak emandako baimena jaso, eta Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Erregistroan inskribatua izan ondoren.

Era berean, Plana denbora mugaturako izango da, 2026ko apirilaren 30era arte iraungo baitu, huraxe izanik Araudi honetan ezarritako berme-aldiaren mugaeguna.

#### II. TITULUA

##### BAZKIDEAK ETA ONURADUNAK

#### I. KAPITULUA

##### MOTAK ETA EZAUGARRIAK

## **5. art. BAZKIDE ETA ONURADUN MOTAK ETA HORIEN EZAUGARRIAK**

BGAE araudian eta Erakundearen estatutuetan jasotakoarekin bat etorritik, bazkide-mota hauek izan daitezke:

### **A.- Bazkide Sustatzailea**

Kutxabank SA da bazkide sustatzailea, eta borondate eratzailaz eta hasierako ekarpenak eginez parte hartu du borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde baten sorreran. Gainera, Erakundearen gobernu-organoetan parte hartzen du, haren estatutuek ezarritako moduan, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Kutxabank SAK Bilbon (Bizkaia) du egoitza, Diego López Haroko kale nagusiko 30-32 zenbakietan, eta inskribatuta dago Bizkaiko Merkataritza Erregistroan (5.226. liburukia, 1. folioa eta BI-58.729 orria). A-95.653.077 IFK zenbakia du ("**Bazkide sustatzailea**").

### **B.- Bazkide arruntak**

Bazkide arruntak edo osoak pertsona fisikoak dira, prestazioren bat lor dezaketenak, beraientzat edo beren onuradunentzat, unean-unean indarrean dagoen arautegiaren arabera ("**Bazkide arruntak**").

Hainbat modalitate daude bazkide arrunten artean:

- Bazkide arrunt aktiboak: beraientzat edo beren onuradunentzat prestazioren bat jasotzeko eskubidea duten pertsonak, beraiek edo hirugarrenek beren izenean eginiko ekarpen ekonomikoen bitartez ("**Bazkide arrunt aktiboak**").
- Etenaldian dauden bazkide arruntak: bazkide aktiboak izan direnak baina hiru ekitaldi ekonomikotan ekarpenik egin ez dutenak, ez beren kabuz ezta hirugarrenek beren izenean ere ("**Etenaldian dauden bazkide arruntak**").
- Bazkide arrunt pasiboak: bazkide aktiboak izan direnak eta prestazioaren zuzeneko titularrak izatera igaro direnak, subjektu babestu gisa, gertakizuna jazo ondoren ("**Bazkide arrunt pasiboak**").

Gainera, Erakundeak onuradunak ere izan ditzake. Onuradunak pertsona fisikoak dira, kausatzailearekin duten harremanegatik prestazioaren titular bihurtzen direnak gertakizuna jazo ondoren ("**Onuradunak**").

Onuradunen berariazko izendapenik ezean, atxikipen-buletinean edo onuradunen izendapena egiazta lezakeen ondorengo dokumentu batean (zuzenbidean baliozkotzat hartzen dena), honako hauek izango dira onuradunak, lehentasun-hurrenkeran adieraziak:

- Legez banandu gabeko ezkontidea edo behar bezala eraturako izatezko bikotekidea.
- Leinuzko ondorengoak.
- Aurreko ahaideak.
- Legezko oinordekoak.

## **II. KAPITULUA**

### **SARTZEKO, KIDE IZATEKO ETA BAJA EMATEKO ARAUBIDEA**

## **6. art. PLANARI ATXIKITZEA**

Bazkide arrunta izateko, banaka eskatu behar da, eta Gobernu Batzordeak erabakitako gutxieneko kopuruak jarri. Bazkide izateak esan nahi du onartu egiten direla Araudi honetako xedapen guztiak.

Planari atxikitzea Bazkide Arruntaren banakako eskaeraren bidez egingo da, eta eskaera horretan jasoko dira Gobernu Batzordeak ezar ditzakeen zehaztapenak.

Bazkide Arruntak edo Onuradunak Planari 2018ko azaroaren hasieratik 2019ko martxoaren 15era atxiki ahal izango zaizkio soilik, eta BGAEren Gobernu Batzordeak horretarako ezar ditzakeen beste aldi batzuetan.

Planari atxikitzeko edota ekarpenak egiteko aldiaren amaiera aurreratu egin ahal izango da ezarritako xedez-batekora iristean (hasiera batean, 20 milioi euroko ondarea) edo muga hori zabalduz gero, hartara iritsitakoan.

Berme-aldiak irauten duen bitartean, denbora-tarte berriak ireki ahal izango dira, non bazkideek ekarpen berriak egin ahal izango dituzten, eta, era berean, planean bazkide berriak sartzea ahalbidetuko da.

Atxikipena Kutxabank SAREN bulegoetan egin ahal izango da, baita Gobernu Batzordeak zehaztutako beste edozeinetan ere.

## **7. art. BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN BAJA**

Erakundearen estatutuetan adierazitako arrazoiez gainera, honako arrazoi hauengatik emango zaie baja Bazkide Arruntari eta Onuradunari:

- Heriotza.
- Eskubide ekonomikoak osoki erabiltzeagatik, legez eta arauz ezarritako modu eta baldintzetan.

## **III. KAPITULUA**

### **ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

## **8. art. BAZKIDE ARRUNTEN ETA ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

BASKEPENSIONES BGAE INDIBUDUALAREN Estatutuetan aurreikusitakoak izango dira, honako salbuespen hauekin:

### 8.1 Eskubide ekonomikoen mobilizazioa

Bazkide Arruntek eta Onuradunek ezingo dituzte beren eskubide ekonomikoak BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALeko beste banakako aurreikuspen-plan batzuetara mobilizatu, ezta eskubide horiek beste Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde batzuetara mugitu ere berme-aldian.

### 8.2 Eskubide ekonomikoak aurretiaz erabiltzea (berreskurapen eskubidea)

Kasu horietan, BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 Planeko bazkideek ezingo dute beren eskubideen borondatezko erreskaterik egin berme-aldia amaitu arte.

### 8.3 Planarekin loturiko bermea

BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2016 Planak Kutxabank SAREN bermea du bermearen azken datan (2026ko apirilaren 30) beharrezkoak diren zenbatekoak osatzeko, eta merkaturatze-aldian Planari ekarpenak egin dizkioten bazkideek (2018ko azaroaren hasieratik 2019ko martxoaren 15era) beren ekarpenen zenbatekoaren % 100 jasoko dute, Planean azkenean jasoko duten errentagarritasunaz gainera.

Errentagarritasun hori indizearen bilakaerak baldintzatuko du, 2019ko martxoaren 15etik 2026ko apirilaren 28ra. Planaren berme-aldia hasiko da 2019ko martxoaren 15ean eta amaituko da 2026ko apirilaren 30ean.

Erakundeak bazkideari jakinaraziko dio 2026ko otsailaren 28a baino lehen berme-aldiaren mugaegunaren data hurbil dagoela, BGAERI adierazi ahal izateko bere eskubide ekonomikoak zer planetara mugitu nahi dituen. Argibideak gauzatzeko epea jakinarazpen hori jasotzen den egunetik 2026ko apirilaren 16ra arte izango da gehienez.

Berme-aldiaren mugaegunean, eskubide ekonomikoak bazkideak adierazitako planera aldatuko dira. Bazkideak ezer adierazten ez badu, Baskepensiones 15 Planera aldatuko dira, edo antzeko ezaugarriak dituen beste batera.

### 8.4 Aldian behingo informazioa

Estatutuen eta aplikagarria den arautegiaren aginduz bazkide arruntei eta onuradunei eman behar zaien informazioa eta dokumentazioa gorabehera, honako hau da aipatutakoek aldi behin jaso behar duten gutxieneko informazioa:

1. Eginiko edo jasotako ekarpen eta/edo prestazioen urteko ziurtapena, baita jasandako atxikipenena ere, hala badagokio.
2. Aldi bakoitzean eginiko ekarpenen (zuzenekoak edo egotziak) seihilekoko ziurtapena, eskubide ekonomikoen balioa aldia amaitzean (eskubiderik balego), eta aldi behin gauzaturako prestazioen zenbatekoa. Gainera, kudeaketa-txosten laburtu bat ere jasoko da, bazkideekin harreman telematiko bat dagoenean izan ezik. Arautegi aplikagarrian ezartzen den informazioa laburbilduko du kudeaketa-txosten laburtuak.

Indarrean dagoen arautegiak zehazten duen informazioa baliabide telematikoen bidez jarriko da bazkide arrunten eta onuradunen esku, norberak dokumentu idatzian jaso nahi duela adierazten duenean izan ezik. Gainera, nahi izanez gero, Kutxabank SAREN edozein bulegotan edo BGAEREN egoitzan ere eskatu ahal izango da.

## **III. TITULUA**

### **EKARPENEN, PRESTAZIOEN ETA GERTAKIZUNEN ARAUBIDEA**

#### **9. art. PLANAREN FINANTZAKETA SISTEMA**

Ekarpen definituko finantza kapitalizazio indibiduala izango da BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 planaren sistema finantzarioa.

#### **10. art. PLANARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK**

1. Bazkide arruntek egingo dizkiote ekarpenak Planari.
2. Ekarpenen zenbatekoa Bazkide arruntek zehaztuko dute, Atxikipen Buletinean, eta sarrera dagokion kontu korrontean egiten den eguna izango dute sarrerako balio-data (Kutxabank SAN zabaldua, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAREN alde).

3. Ekarpinak kobratzeko, bide hauek erabiliko dira bakar-bakarrik:
  - Zordunketa Gizarte Aurreikuspeneko Planari lotutako banku-kontuan. Kontua izan daiteke bazkidearena edo arautegiaren arabera ekarpinak egin ditzaketen pertsonena.
  - Banku-transferentzia bazkideari dagokion Gizarte Aurreikuspeneko Planaren kontura.
4. Bazkide Arruntek 2018ko azaroaren hasieratik 2019ko martxoaren 15era egin ahal izango dituzte ekarpinak, eta BGAEn Gobernu Batzordeak horretarako ezar ditzakeen beste aldi batzuetan.
5. Beste BGAE baten aurreikuspen-planen eskubide ekonomikoak BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 planera mobilizatzeko unean-unean indarrean dagoen araudiak ezarritakoa beteko du.

#### **11. art. EKARPENAK ITZULTZEA**

Ekarpinak kobratzeko administrazio-prozesuko akatsen ondorioz, ekarpinak gaizki zorduntzen direnean bazkide arruntan kontuetan, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundeak, bazkideek hala eskatuta, gaizki kobratutakoa izapidetuko du, baldin eta zerga-ekitaldi berean egiten bada.

#### **12. art. INBERTSIOEN ARAUBIDEA**

Erakundearen Estatutuekin bat etorriz, Planari atxikitako ondarea dagozkion segurtasun-, likidezia- eta errentagarritasun-irizpideen arabera inbertituko da, era honetako Erakundeei aplikatzeko moduko araudiak xedatutako moduan eta zenbatekoan, eta zehazki, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jardura jakin batzuk egikaritzeko modua arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutako eran.

BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 planari atxikitako ondarea inbertitzean, kontuan hartuko da beti aurreko paragrafoan ezarritakoa, Gobernu Batzordeak erabakiko dituen eta Inbertsio Printzipioen Adierazpenaren bidez Bazkide Arruntei eta Onuradunei jakinaraziko zaizkien mugen barnean.

#### **13. art. PLANAREN PRESTAZIOAK**

Planaren prestazioak (Araudi honen hurrengo artikuluan jasoak) Bazkide Arruntak edo Onuradunak prestazioen ordainketa-datan dituen eskubide ekonomikoen balioari dagozkie.

Ezingo dira eskubide ekonomikoak bahitu, harik eta dagokion prestazioa kobratzeko eskubidea emango duen gertakizuna jazo arte; eta ezingo da eskubide horietan kenkaririk, atxikipenik, lagapenik edo konpentsaziorik gauzatu, ezta ezin kontraturen berme gisa erabili ere.

Gertakizuna jazotakoan, bahitura, oztopo judiziala edo administratiboa baldin badago, epaitegiak edo administrazio eskudunak erabakitakoa bete beharko da.

Heriotza kasuan, bahitura, oztopo judiziala edo administratiboa baldin badago, epaitegiak edo administrazio eskudunak erabakitakoa bete beharko da, onuradunei legezkiekeen hondarreko eskubide ekonomikoak jakinarazi aurretik.

#### **14. art. PLANAK ESTALTZEN DITUEN GERTAKIZUNAK**

BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 plana integratzen duen BGAEk estaltzen dituen eta prestazioak ordaintzearen arrazoi diren gertakizunak hauek dira:

##### **a) Erretiroa.**

Erretiro-gertakizuna halakotzat joko da Bazkide Arruntak Gizarte Segurantzaren eta antzekoen araubidean oinarrituta edo eskumena duen organoaren arabera erretiroa hartzen duenean. Erretiroztat hartuko dira, halaber, erretiro aurreratua, malgua, partziala eta Gizarte Segurantzak onartzen dituen beste hainbat egoera baliokide.

Aurreko paragrafoan aipaturiko erretiroa ezin bada hartu, Erakundearen estatutuetan adierazitako adinean hartuko dela ulertzen da, inolaz ere ez 60 urte bete aurretik, baldin eta lan jarduerarik edo jarduera profesionalik egiten ez bada edo egiteari uzten bazaio, eta erretiro-gertakizunerako kotizatzen ari ez bada Gizarte Segurantzaren inolako araubidetan.

Erretiro partziala hartzen duten bazkideek erretiro osorako ekarpenak egin ahal izango dituzte, dagokion prestazioa jasotzen badaude ere.

**b) Ezintasun iraunkorra edo lanerako baliaezintasuna, Gizarte Segurantzaren edo antzekoen edozein araubidetan ezarritakoaren edo eskumena duen organoaren arabera.**

Ezintasun iraunkorra edo lanerako baliaezintasuna izan daiteke: ezintasun iraunkor partziala ohiko lanbiderako; osoa, ohiko lanbiderako; absolutua, era guztietako lanetarako; eta baliaezintasun handia. Egoera horiek zehazteko, Gizarte Segurantzaren dagokion araubidea erabiliko da.

Bazkide arruntak ezin badu Gizarte Segurantzaren sistema publikoko lanerako ezintasunari dagokion inolako prestaziorik jaso, lanerako ezintasun-gertakizuntzat joko da, baldin eta ordaindutakoaren arabera ez diren pentsioei aplikagarria zaien araudiarekin bat etorrira, eskumena duten organo ofizialek edo Erakundeak balorazio-funtzio hori espezifikoki egozten dion organoak erabakitzen badute aipatutako araudian jasotako baremoen arabera % 33tik gorako ezgaitasun maila edo gaixotasun kronikoa duela.

**c) Heriotza**

Bazkide arruntaren heriotzak alarguntasun- edo zurtasun-prestazioetarako eskubidea sor dezake, baita beste onuradun batzuen aldeko prestazioak ere. Onuradunak, dokumentu fede-emaileen bidez hala dela egiaztatzen duenean, aukera hauek izango ditu:

- Erakundearen Bazkide Arrunt gisa sartzea, dagozkion eskubideekin.
- Eskubide horiek Onuradunak adierazitako erakundera intsuldatzeko eskatzea, Araudi honetan aukera hori mugatua ez badago.
- Eskubideak eskuratzea, osorik edo partzialki, bazkide arruntaren heriotzagatik prestazio gisa.

**d) Mendekotasuna**

Adinagatik, gaixotasunagatik edo ezgaitasunagatik, autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo sentsoriala galtzen dutenez, beste pertsonen etenik gabeko laguntza behar duten pertsonen egoera da; edo laguntza handiak behar dituzte, eguneroko oinarrizko zereginetarako, edota, ezgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, beste laguntza batzuk behar dituzte beren autonomia pertsonalerako. Gertakizun hau bat etorriko da mendekotasun larriarekin edo mendekotasun handiarekin, mendekotasunari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

**e) Iraupen luzeko langabezia**

Lana galdu edo jarduera eten (langile autonomoen kasuan) duten pertsonak, baldintza hauek betetzen dituztenak:

- (i) Legez langabezia-egoeran egotea. Ondorio horietarako, lan-harremanaren edo harreman administratiboaren amaitze-kasuak hartuko dira aintzat, bai eta lan-kontratuaren etenak ere. Guztiak Gizarte Segurantzaren legedian aurreikusi bezalaxe.
- (ii) Ordaindutakoaren arabera langabeziagatik prestazioetarako eskubiderik ez izatea, edo hala badagokio, urtebetean kobratu izana, prestazioa aurretik amaitu den kasuetan izan ezik. Urtearen zenbaketa egiaztatu ahal izango da nahiz eta langabeziako 12 hilabeteak ez izan jarraian.

- (iii) Eskaera egitean enplegu publikoaren dagokion zerbitzuan enplegu-eskatzailer gisa izena emanda edukitzea.
- (iv) Aurretiaz Gizarte Segurantzaren araubidean integratuta egon diren eta orain jarduera etenda duten norberaren konturako langileen kasuan ere prestazioa jaso ahalko da, arestian aipatutako (ii) eta (iii) ataletan xedatutako baldintzak betetzen badira.
- (v) Prestazioa hilabeteko errenta moduan ordainduko da, non eta Bazkide Arruntak ez duen ordainketa bakarrean egiteko eskatzen, enplegua sustatzeko helburu zehatz batzuekin. Hilabeteko errenta baliokidea zehazteko, honako irizpide hauek aplikatuko dira:
  - Ordaindutakoaren arabera langabeziagatik prestazio publikoa jasoz gero, errenta baliokide maximoa ordaindutakoaren arabera jasotako prestazioaren parekoa izango da, hasierako zenbateko gordin berekoa.
  - Ordaindutakoaren arabera prestazioan jasotako zenbatekoa murriztuz gero, murrizketa hori orekatu ahal izango da egindako murrizketaren gehieneko zenbateko bereko prestazio osagarri bat emanez.
  - Ordaindutakoaren arabera prestaziorako eskubiderik izan ezean, sistema publikoan ordaindutako kotizazioak aintzat hartuta kalkulatu da gehieneko prestazio baliokidea, bai eta ordaindutakoaren arabera prestazioa jasotzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen direla aintzat hartuta ere.

#### **f) Gaixotasun larria**

Bazkide Arruntari bere ohiko jarduera edo zeregina gauzatzea gutxienez hiru hilabeteko denboraldi jarraituan galarazten dion zeinahi gaitz fisiko zein mental edo lesio, edo bazkidearen, ezkontidearen, izatezko bikotearen, lehen mailako aurreko ahaideen zein ondorengoen edo babesean zein harreran Bazkide Arruntarekin bizi den edo haren menpekoa den pertsonaren kirurgia handiko esku-hartze kliniko edo ospitaleko tratamendua eskatzen duen gaitza.

Aurreko kasuak gaixotasun larritzat joko dira, baldin eta Bazkide Arruntak ez badu horregatik baliaezintasun iraunkorragatik ezein mailako prestaziorik jasotzen, Gizarte Segurantzaren araubidearen arabera, eta betiere, bazkideak erabilgarri duen errentaren gutxitzea badakar, gastuak handitu direlako edo diru-sarrerak murriztu direlako, modu egokian egiaztatuta. Ondorio horietarako, gastuen aurrekontuak aurkeztu ahal izango dira.

Prestazio-eskaerak BASKEPENSIONES BGAE INDIVIDUALARI egingo zaizkio, idatziz, beharreko egiaztagiriekin batera.

### **15. art. PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO MODALITATEA**

1. 14. artikuluan aipatutako gertakizunak direla-eta bazkideek jaso behar dituzten prestazioak kapital moduan ordainduko dira, eta haien zenbatekoa izango da Bazkide Arruntak prestazioa ordaintzeko egunean dituen eskubide ekonomikoen balioaren berdina.

Iraupen luzeko langabeziagatik prestazioa hilabeteko errenta moduan ordainduko da, non eta Bazkide Arruntak ez duen ordainketa bakarrean egiteko eskatzen, enplegua sustatzeko helburu zehatz batzuekin.

Prestazioa gaixotasun larriagatik kapital gisa gauzatuko da eta ezingo du gainditu sortutako gastuen zenbatekoa edo sortutako diru-sarreraren minorazioa, gaixotasunaren ondorio gisa.

2. Prestazioen ordainketa, kapital edo errenta moduan, Bazkidearen edo Onuradunaren titulartasuneko banku-kontuan sarrera eginez egingo da bakar-bakarrik.

Bazkideak idatziz eskatu beharko du prestazioa.



## **16. art. PRESTAZIOAK ORDAINTZEKO PROZEDURA ETA AITORPENA**

1. Prestazioa eragiten duen gertakizun bat jazotzean, prestazioa jaso nahi duen Bazkide Arruntak edo/eta Onuradunak horixe jakinaraziko dio BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAri, beharrezkoa den informazioa eta prestaziorako eskubidea duela egiaztatzen duen dokumentazioa gehituta.

2. BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundeak dokumentazio hori aztertuko du, eta beharrezkoak iruditzen zaizkion datu guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. Eskaera eta sinestamendu guztiak Entitatean aurkeztu eta bost egun baliouduneko gehieneko epean ordainduko ditu BGAEk prestazioak. Gertakizuna Bazkide Arrunt baten heriotza bada, epe hori Onuraduna nor izango den zehazten denean hasiko da.

4. Bazkideek edo Onuradunek egin nahi duten erreklamazio orotarako, BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA erakundeko Gobernu Batzordearengana edo bazkidearen defendatzailearengana joko dute. Hurrengo bilerako aztergaien zerrendan sartuko da erreklamazioa. Hartutako erabakia erreklamatzailerari jakinaraziko zaio.

## **17. art. BERMEA**

BASKEPENSIONES BERMATUA APIRILA 2026 Planak Kutxabank SArek bermea du bermearen azken datan (2026-4-30) beharrezkoak diren zenbatekoak osatzeko, eta merkaturatze-aldian Planari ekarpenak egin dizkieten bazkideek (2018ko azaroaren 1etik 2019ko martxoaren 15era) beren ekarpenen zenbatekoaren % 100 jasoko dute, Planean azkenean jasoko duten errentagarritasunaz gain. Planaren berme-aldia 2019ko martxoaren 15ean hasiko da, eta 2026ko apirilaren 30ean amaitu.

Planaren bazkideek lortutako amaierako errentagarritasuna, kupoi aldakor baten bidez ordainduko da berme-aldiaren amaieran, kontuan izango duena Eurostoxx-50 indizearen bilakaera 2019ko martxoaren 15aren eta 2016ko apirilaren 28aren artean.

- Mugaegunean:
- a. % 15,50 kupoia, baldin  $AB \geq \% 110$  HB
  - b. % 12,00% kupoia, baldin  $AB \geq \% 105 < \% 110$  HB
  - c. % 8,50 kupoia, baldin  $AB \geq \% 100 < \% 105$  HB
  - d. % 5,00 kupoia, baldin  $AB \geq \% 95 < \% 100$  HB
  - e. % 1,50 kupoia, baldin  $AB < \% 95$  HB

Beraz, errentagarritasuna Eurostoxx-50 indizeak 2019ko martxoaren 15 eta 2026ko apirilaren 28 artean duen bilakaeraren mende egongo da, eta amaierako errentagarritasuna % 0,21 UTB eta % 2,04 UTB artekoa izan ahalko da.

## **IV. TITULUA**

### **ADMINISTRAZIO GASTUAK**

## **18. art. ADMINISTRAZIO GASTUAK**

Planaren administrazio-gastuak araudi aplikagarrian ezarritakoren arabekoak izango dira. % 0,40ekoak izango dira, eta hari atxikitako ondarearen arabera kalkulatuko dira. Gastu-portzentaje hori % 0,00 izango da merkaturatze-aldian, 2019ko martxoaren 15ean amaituko dena.

Ondorio horietarako, administrazio-gastutzat hartuko dira Planari atxikitako ondarearen administrazio-lanetan sortzen diren zuzeneko zein zeharkako gastu guztiak; balioen salerosketatik eratorritako bitartekaritza-gastuak, ordea, ez.

## V. TITULUA

### ARAUDIA ALDATZEA

#### 19. art. ARAUDIA ALDATZEA

Araudi hau aldatu egin ahal izango da BGAEren Gobernu Batzordeak proposatzen eta onartzen badu, eta ondoren, Eusko Jaurlaritzari aurkezten bazaio eta hark onartzen eta erregistratzen badu.

## VI. TITULUA

### GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK EBAZTEA

#### 20. art. GATAZKAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Bazkide Arruntak, Onuradunak edo pertsona eskubidedunek legez onartutako beren interes eta eskubideekin zerikusia duten kexak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, idatziz, Gobernu Batzordean edo bazkidearen defendatzailearen aurrean, norberak aukeratuta.

Gobernu Batzordeak, hala badagokio, Erakundearen zuzendaritzaren esku utz dezake ebazteko lana, edo hala badagokio, bertan zerbitzu profesionalak eskaintzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoen esku.

Bazkidearen defendatzaileak gehienez ere 15 eguneko epean ebazteko dituzten aurkezten dizkioten erreklamazio guztiak, berezkoa duen prozedura-araudiaren arabera. Eta defendatzailearen aldeko erabakiak lotesleak izango dira Erakundearentzat.

Bazkidearen edo gobernu-batzordearen defendatzailearen erabakia ez da oztopo izango erabateko tutoretza judizialerako eta ez administrazio-kontrolako eta -berrikuspeneko funtzioen erabilerarako.

Nolanahi ere den, kexa edo erreklamazioa Batzar Nagusian edo Gobernu Batzordean erabaki bat hartzeko arrazoi bada, Erakundearen estatutuetan xedatutakoa aplikatuko da.

## VII. TITULUA

### PLANA IRAUNGITZEKO ARRAZIOIAK ETA ONDAREAREN ERABILERA

#### 21. art. PLANA IRAUNGITZEA

Plana iraungi egingo da araudi honetan ezarritako berme-aldiaren mugaeguna igaro ondoren.

Plana iraungitzean, eskubide ekonomikoak bazkideak edo onuradunak izendatutako planera aldatuko dira, edo berariaz ezer adierazi ez bada, Baskepensiones 15 Planera edo antzeko ezaugarriak dituen beste batera aldatuko dira.